


Gizarte Hezkuntzako Gradua

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia
Fakultatea

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN



VI. Modulua

Gizarte eta Hezkuntzako Esku-hartzeak

Moduluko gida

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKIBIDEA

1.	HELBURU OROKORRA ETA GAITASUNAK	3
2.	IKASGAIK, ORDUTEGIAK ETA DIZIPLINARTEKO LANARI (DILAN) EGITEN ZAION EKARPENA IKASGAI ANITZETATIK	4
3.	DIZIPLINARTEKO LANA, PROZEDURA ETA TXOSTENAREN EGITURA.....	7
4.	EGUTEGIA ETA KRONOGRAMA.....	9
5.	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	11

1. HELBURU OROKORRA ETA GAITASUNAK

Helburu orokorra

Modulu honen xedea da ikasleek ezagutzea zein diren gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen testuinguruak (programak, egoerak, populazio-taldeak, esparruak) eta lanbide honetako funtsezko tresnak.

Modulu honen bitartez, gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen esparru nagusietako eginkizunei eta prozedurei ekin nahi diegu, eta bereziki lehenetsi gure testuinguruan eskari handiagoa duten eta, beraz, enplegua lortzeko aukera gehiago eskaintzen duten esparruak.

Esparruak honako hauek dira: haurtzaroa, nerabezaroa, gaztaroa, familia, pertsona helduak, adinekoak, mendeko pertsonak eta testuinguru kaltetuak.

Modulua hezurmamitzen duen diziplinarteko jarduera honako honetan datza: ikasleak, kasu baten azterketa egin ondoren, gizarte-hezkuntzaren edozein esparrutan esku-hartze plangintza egingo du eta egin beharreko jarduera profesionalaren azterketa osoa zein aurkezpen arrazoitua egingo eta aurkeztuko du.

Garatu nahi diren gaitasunak

Modulu honi dagozkion ikaskuntzak honako gaitasun hauekin lotuta daude:

1. Moduluaosatzen duten esku-hartze esparruetako erakunde-, organizazio- eta heziketa-sarea ulertzea eta, horrez gain, gizarte-hezitzailearen eginkizun profesionalak kokatzea.
2. Moduluaosatzen duten lan-esparruetako diagnosien, balorazioen eta esku-hartzeen ereduak aztertzea.
3. Esku-hartzeko egoerak identifikatzea eta premiak atzeman eta lehenestea, gizarte eta hezkuntzako esku-hartze proposamen zehatz bat egiteko, irizpide etikoei eta laneko deontologia-irizpideei jarraitu eta genero-dimentsioa aintzat hartuta.
4. Moduluaosatzen duten esparruetako bakoitzak berezkoak dituen esku-hartzeak erabiltzea jarrera zuhur eta kritikoarekin.

Ikasitakoaren emaitzak

Kasu-azterketa bidezko ikasketaren bidez honako emaitza hauek lortuko dira:

- Moduluan eskuratutako ezagutza teoriko eta praktikoak integratzea, kasu baten azterketaz baliatuz.
- Aurrez atzemandako premiei erantzuteko proiektuak edo programak diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea.
- Hezkuntza-proposamenei eta hezkuntza-bitartekoei buruzko erabakiak hartzea.
- Lan esparru bakoitzean profesionalak egin beharreko esku-hartzeen zehaztapena eta ezagutza arazoitua.
- Izaera profesionaleko proiektuak eta ideiak ahoz eta idatziz adieraztea.
- DILANA aurkeztea, arau formal akademikoei jarraituz.

2. IKASGAIK, ORDUTEGIAK ETA DIZIPLINARTEKO LANARI (DILAN) EGITEN ZAION EKARPENA IKASGAI ANITZETATIK

Ikasgaiak

Jarraian ikusi daitezke ikasgaiak, irakasleak, ikasgai motak eta kredituak.

IKASGAIK	IRAKASLEA/K	MOTA	KREDITUAK
Gizarte eta hezkuntza esku-hartzea pertsona helduekin, adinekoekin eta mendeko pertsonekin (A)	Goretti Orbea	Nahitaezkoa	6
Gizarte eta hezkuntza esku-hartzea testuinguru kaltetuetan (K)	Alaitz Etxaniz	Nahitaezkoa	6
Gizarte eta hezkuntza esku-hartzea familian, haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan (FHNG)	Joana Miguelena	Nahitaezkoa	6
Familia-orientazioa (F)	Iruñe Ibarra	Hautazkoa	6
Bizitza aktiborako trantsizioa (BAT)	Zehazteke	Hautazkoa	6
Kultura arteko hezkuntza (KA)	Eider Saragueta eta Miren Aguirregoitia	Hautazkoa	6

Ordutegiak

HEFA Fakultateko webgunean agertzen dira irakasgaien ordutegiak (ikus 2. lauhilabetea): <https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/3.-mailaeduca>

DILANari egiten zaion ekarpena ikasgai anitzetatik

Ondoren erakusten dira DILANarekiko ekarpenak modulua osatzen duten ikasgaietatik.

Gizarte eta hezkuntza esku-hartzea pertsona helduekin, adinekoekin eta mendeko pertsonekin (nahitaezkoa) (A)

Ikasgaiaren edukietatik kasuan aintzat hartzeko elementuak atera daitezke, esaterako, honako hauek:

- Gizarte- eta hezkuntza-alorreko helduen premiak gaur egun: familiako helduak ardatz hartuta, haien egoera, prestakuntza eta hezkuntza-premiak azter daitezke haien egoera pertsonal eta sozialaren arabera.
- Helduak gizarte eta hezkuntzako esku-hartzearen subjektu gisa: helduen prestakuntzatik justifikatzen da eta, bereziki, gurasoek, izebak dituzten premietatik.
- Mendetasun-egoeran dauden pertsonak eskubide osoko herritar gisa: depresioa, alkoholismoa, hirugarren adineko pertsona bat... minusbaliotasunen gaia, mendetasunari buruzko arauak, minusbaliotasunen bat dutenen eskubideak eta abar aztertzea gonbidatzen duten elementuak dira.
- Gizarte- eta hezkuntza-alorreko esku-hartze proposamenak: programa pertsonalak eta komunitarioak aurkez daitezke, adinekoei zuzenduak, minusbaliotasuna duten pertsoneri edo bestelakoei, eta komunitate integratzaile baten eskaeren arabera.
- Gizarte-hezitzailearen papera pertsona helduekin, adinekoekin eta mendekoekin esku hartzerakoan.
- Gizarte- eta hezkuntza-bitartekoak: minusbaliotasuna duten pertsonen alorrean diharduten zerbitzu eta erakundeen berri emango da, batez ere, kasuari begira, osasun mentalarekin eta hirugarren adinarekin lotutakoa.

Gizarte eta hezkuntza esku-hartzea testuinguru kaltetuetan (nahitaezkoa) (K)

Irakasgaiaren edukiek DILANaren garapenerako erabilgarriak diren elementuak eskainiko dituzte hurrengo alderdietan:

- Testuinguru kaltetuetan egiten den gizarte eta hezkuntza esku-hartzeari buruz ezagutza eta informazio baliagarria lortzeko datu-baseen ezagutza.
- Testuinguru kaltetuetan dauden pertsonen profilaren deskripzioa (beharrak, ezaugarriak, egoera, motibazioa, interesak, etab.).
- Testuinguru kaltetuetako pertsonekin lan egiten duen zerbitzu-sarearen deskripzioa.
- Talde kaltetuekin edo testuinguru kaltetuetan parte hartzen duten erakundeek egiten duten esku-hartzearen ezagutza; baita gizarte-hezitzaileek esku-hartze horietan duten eginkizuna ere.
- Gizarte eta hezkuntza esku-hartze programen diseinua.

Gizarte eta hezkuntza esku-hartzea familian, haurtzaroan, nerabezeroan eta gaztaroan (nahitaezkoa) (FHNG)

Ikasgai honetan, kasuak aurkezten duen egoeran inplizitu dauden funtsezko galderei eman dakizkiekeen galderak aztertuko ditugu. Honako galdera hauei, alegia:

- Haurtzaro-kontzeptua: Haurtzaroa edo haurtzaroak? Zein da kasuak aurkezten duen begirada haren protagonistei dagokienez?
- Babesgabeko haur eta nerabeen alorreko erakunde- eta arau-sarea: zer legek eta arauk arautzen dute haurtzaroaren eta gaztaroaren alorreko esku-hartzea? Zer erakundetatik erantzuten zaio egoera horri?
- Haurtzaroan, nerabezeroan eta gaztaroan esku hartzeko bitartekoen eta programen sarea Gipuzkoan eta EAEn: zer zerbitzu eta bitarteko aktibatu dira kasu honetan? Zein aktibatu behar ziren? Zein dira haien esku-hartzearen mugak?
- Bitarteko normalizatuak, oinarritzkoak eta espezifikoak: zein dira? Hezkuntza-xedea, lanabes eta tresna estandarizatu espezifikoak.
- Hezitzailearen papera eta garrantzia: zein dira nire bitarteko propioak gizarte-hezitzaile gisa?
- Profesionalen arteko koordinazioa eta sareko lana: zein profesionalekin partekatu behar dut ekintza? Zein dira alderdi horren benetako inplikazioak?

Familia-orientazioa (hautazkoa) (F)

Familia-orientazioaren irakasgaietan, honako puntu hauek kontuan hartuta kokatuko dugu kasua:

- Familia, aniztasunetik eginiko eraikuntza bezala.
- Euskadiko Familia Politika. Familia-orientazioko esku-hartze mailak. Familia-hezitzailearen papera.
- Familiaren ezagutzarako marko teorikoak: ikuspegi nagusiak eta familia-dinamikaren oinarritzko prozesuak.
- Hezkuntzatik eginiko esku-hartzea zerbitzu publikoetatik.

Bizitza aktiborako trantsizioa (hautazkoa) (BAT)

Ikasgai honen helburua da aztertzea gazteak moldatu behar diren gizarte-ingurune trantsizioaren, gizarteratzearen eta lan-munduratzearen prozesuak eta programak. Ikasgai honetan, kasuak inplizituki barne hartzen dituen funtsezko gaien balizko erantzunei helduko diegu. Hona gaiak:

- Ezagutzea dauden ibilbideak eta informazio-iturriak hezkuntza-sistematik lan-mundura heltzeko.
- Lan-munduratzearen faktoreak. Trantsiziorako zailtasunak.
- Zein dira trantsizio-, gizarteratze- eta laneratze-prozesuak eta programak? Zein dira Erkidegoko hezkuntza-, prestakuntza- eta enplegu-programak eta sareak?
- Zein dira enplegua bilatzeko estrategiak gazteak moldatu behar diren gizarte-ingurunean?

Kultura arteko hezkuntza (hautazkoa) (KA)

Ikasgai honen helburua da ikasleei laguntzea hezkuntza formalean eta ez-formalean etorkinekin nola antolatu asmatzen. Gizartearen erronka berriei erantzuteko proposamen berriak eta erantzunak antolatzeko laguntza nahi du izan. Lanerako ildoak:

- Kultura, hezkuntza, kultur aniztasuna eta beste kontzeptuak aztertzea.
- Kultur arteko hezkuntza formala eta ez-formala aztertzea.
- Kultura arteko hezkuntzaren oinarritzko gaiak aztertzea eta eztabaidatzea: PISA txostena, ikasle etorkinak. Praktika onak eremu formalean eta ez-formalean.
- Eleaniztasuna eta ikasle etorkinak. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako programak.
- Gizarte-hezitzaileen formazioa kulturarteko hezkuntzan.

3. DIZIPLINARTEKO LANA, PROZEDURA ETA TXOSTENAREN EGITURA

Egin beharreko diziplinarteko lana

Dilan honetan gizarte hezkuntzatik esku-hartzeak proposatu behar dira, testuinguru zehatz batetan kokatuta eta hainbat tresna erabiliz. Moduluaren amaieran, ikasleek aurkeztu beharko dute, bai ahoz bai idatziz, proposatutako kasuaren txostena eta kasuaren garapenerako proposatzen den esku-hartzea. Txosten idatziak prozesuan zehar hartutako erabakien azterketa eta balorazioa jasoko du, eta baita, modu arrazoituan, hobetzeko aukera bideragarriak ere.

Aztertu beharreko kasuaren narrazioa eta informazio osagarria jasotzen dituen dokumentua DILANaren aurkezpen-unean banatuko zaio ikasleari. Pentsamenduak, hausnarketak eta erabaki partekatuak galdera hau izango du ardatz:

“Nik, gizarte-hezitzaile gisa, nola egingo nuke lan aurkeztu didaten kasu/egoera honetan, eta, nire esku-hartze prozesuan, zein ingurunetan eta zein zerbitzurekin egingo nuke lan? Zein esku-hartze egingo nuke?”

Metodologia

DILANa *kasuaren metodoan* oinarrituko da. *Kasu-metodoa* irakaskuntza/ikaskuntzako estrategia aktibo bat da, egoera (benetako edo hipotetiko) bat ardatz duten zenbait zereginen bitartez ikasleak errealitatera hurbiltzea eta garrantzizko erabakiak hartzen hastea xede duena.

Kasuari diziplinarteko ikuspegitik heltzeak, esparru/egoera/testuinguru komun bat eskaintzen die ikasleei eta, era berean, ahalbidetzen du haiek esku-hartzearen alorreko jardunera irekitzea gizarte eta hezkuntzako esku-hartzearen alorreko zerbitzu, programa eta/edo bitartekoen bidez; gure testuinguruan, modulua osatzen duten nahitaezko ikasgaietan heltzen eta garatzen diren zerbitzu, programa eta/edo bitartekoen bidez, alegia.

Kasuak agertoki orokor bat deskribatzen du, hainbat aldagai dituena eta aztergai izan daitekeena. Xedea da ikasleek egoera aztertzea, arazoak zehaztea eta beren ondorioak ateratzea, bai bideratu diren ekintzei buruz zein bideratu behar liratekeen ekintzei buruz. Horretarako, gaia taldean eztabaidatu eta beren ekintza-plana ahoz eta idatziz deskribatu edo aurkeztu beharko dute. Aurkezpena egiteko euskarri desberdinak erabiliko dira (*powerpointa*, material idatzia, filmatua edo marraztua, euskarri informatikoan edo ikus-entzunezkoan). Teoria adibide bidez azaltzeko eta eskuratutako ezagutzak praktikan jartzeko erabil daitezke kasu-azterketak. Estrategia horrek ikasleari bere ikaskuntzan inplikatzeko laguntzen dio eta taldean lan egiteko aukera ematen dio. Talde txikitik zein handitan erabil daiteke.

Dilana egiteko prozedura

DILANaren azken txostenak atal hauek izango ditu:

1. Azala; taldeko kideen izenak ere jarri behar dira.
2. Aurkibidea; atal bakoitza zein orrialdetan dagoen jarri behar da.
3. Lanaren laburpen txiki bat (200 hitz).
4. Lanari buruzko sarrera.
5. Lanaren garapena eta erabilitako metodologia.
6. Moduluko ikasgaien ikuspegi integratu batetik idatzitako ondorio hausnartuak.
7. Lan taldearen antolaketa, garapena eta egindako lanaren balorazioa.
8. Kontsultatutako bibliografia eta informazio-iturriak.
9. Eranskinak

Txostenaren egitura

- Txostenaren gutxieneko luzera: 30.000 karaktere, pdf batetan.
- Letra-tipoa: aise irakurtzeko modukoa (Times New Roman, Verdana, Calibri, Arial...). Erabili letra-tipo bera dokumentu osoan.
- Letra-tipoaren tamaina, txostenean: 12. Erabili tamaina handiagoak edo txikiagoak atalen izenburuetarako (14) eta orri-oineko oharretarako (10). Gogoan izan Verdana letra-mota dislexia dutenentzako gomendagarria dela.
- Lerroarte: 1,5
- Marjinak: goikoa eta behekoa, 2,5; ezkerrekoa eta eskuinekoa, 3 (Word-en estandarra).

- Txostenaren orrialdeek goiburua izango dute (sekzio bakoitzerako bat: sarrera, proiektuaren oinarriak eta abar), eta orri-oina (orrialdeen zenbakiak).
- Taulak eta irudiak, behar bezala zenbakituta, oinean deskribapena dutela, eta testuaren barruan erreferentzia jarrita.
- Kapitulu bakoitza orrialde bakoiti berri batean hasiko da.
- Bibliografia-aipamenak eta erreferentziak, APA arauen arabera (atxikitzen dugu EHUtik eginiko laburpen-gida).

DILANa hiru fasetan burutuko da:

1. EGOERAREN ANALISIA ETA BALORAZIOA
2. ARRISKU ETA BABES FAKTOREAK ETA FAMILIAREN BIZI-KALITATEA ZEHAZTEA. TESTUINGURUAN KOKATZEA. ESKU-HARTZE PROPOSAMENA EGITEA
3. GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ESKU-HARTZEA

DILANaren aurkezpena egiten denean emango dira zehaztaperen guztiak, hau da, ikasgelako lana eta ikasgelaz kanpoko lana zein izango diren eta zein den bilatzen den azken emaitza. Izan ere, 10 ordu presentzialeko 15 ordu ez presentzial dela kalkulatu da. Hiru aldiz ematen zaio lana tutoreari eta ondoren *feedbacka* egoten da.

DILANen talde-lanean lortutako notak ikasgai bakoitzean 2 puntu arte gehitzea ekarriko du. Kalifikazioa (0-2) izango da: % 75, egindako dokumentua, eta % 25, ikasgelako aurkezpena eta derrigorrezkoa da bi atalak gainditzea.

DILANak helburu dituen konpetentziak ikasle guztiek landu beharko dituzte, idatziz eta ahoz.

4. EGUTEGIA ETA KRONOGRAMA

Egutegia

DILANa aurkezten denerako zehaztuta egongo dira DILAN egunak eta egun bakoitzeko irakasleak. Kasua bideratzeko baliagarriak diren zenbait dokumentu ere emango dira. Posible da baita DILAN saioaren batean hitzaldiren bat egotea eta informazioa zabalduko da halakoetan.

Hauxe da aurtengo ikasturteko egutegia, Hefa Fakultatean ageri dena:

<https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/egutegia>

Kronograma

Kronograma eransten da ondoren.

ASTEAK	ENTREGAGARRI ZENBAKIA	ENTREGARRIA	AURKEZPENA
16-20	1	EGOERAREN ANALISIA ETA BALORAZIOA TUTOREARI KORREO BIDEZ	
21-25	2	ARRISKU ETA BABES FAKTOREAK ADIERAZTEA, FAMILIAREN BIZI-KALITATEA ZEHAZTEA, TESTUINGURUA FINKATZEA, ESKU HARTZE PROPOSAMENA EGITEA. TUTOREARI KORREO BIDEZ.	
26-30	3	TXOSTEN OSOA ETA AURKEZPENeko EUSKARRIA. TUTOREARI ETA KORREO BIDEZ	AZKEN ASTEAN, AHOZ ETA EUSKARRIAREKIN

5.EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

DILANa emateko, aurkezteko eta ebaluatzeko, ezinbestekoa izango da aurrez tutorearen oniritzia. Tutorearen ustez ez baditu betetzen 6. puntuko baldintzak (“Txostenaren egitura”) eta lanaren prozedura, EZ GAITZAT joko du, eta ikasgaietako ohiko ebaluazioa ezinezkoa izango zaio ikasleari. Egoera horretan, ikasgai bakoitzeko “azken proba”ra jo beharko du ikasleak. Tutorearen iritziz baldintzak bete badira, moduluko irakasleek DILANa ebaluatzeari ekingo diote.

DILANean lor daitekeen baloraziorik gorena 2 puntukoa izango da ikasgai bakoitzerako. Bi puntuak honela banatuko dira: a) ahozko aurkezpenean, gehienez 0,50 puntu, eta b) lan idatzirako, gehienez 1,50 puntu. Derrigorrezkoa da bi atalak gainditzea. Entregagarrien ebaluazioak eragina izango du behin betiko txostenaren notan.

Ebaluazio-irizpideak

1. Egokitasuna: txostenaren edukiak landutako gaiak modu koherentean eta osatuan aztertu behar ditu, txostenaren irakurketa hasierako galderari emandako erantzun ongi landua izan dadin.
2. Informazioaren antolaketa: Emandako informazioak ongi antolatuta egon behar du (dokumentu honetan zehaztutako egituraren arabera). Grafiko eta taulek ondo eraikita eta zenbakituta egon behar dute, eta izenburua jarri behar zaie. Informazioa, lortutako datuak, aise aurkitzeko moduan.
3. Emaizten integrazioa eta justifikazioa. Emaizte arazoaren ikuspegi osoa eman behar dute, eta emandako datuetan oinarrituta egon behar dute. Emaizte eusten dien arrazoibideak koherentea eta argia izan behar du.
4. Unibertitate-mailari dagozkion idazkera eta zuzentasuna erabiliko dira, forma aldetik (ortografia, aipamenak, erreferentzia bibliografikoak, e.a.) zein idatzizko adierazpenaren kohesioaren eta koherentziaren aldetik.
5. Akademiaren, zientziaren eta lanaren esparruetako kode etikoak errespetatzea.
6. Ezarritako epeak betetzea.
7. Ahozko aurkezpenean denbora-mugak errespetatzea (hasiera eta amaiera). Halaber, kontuan izango da erabilitako euskarriak zenbateraino landuak dauden eta zenbateko eskarmentua erakusten den euskarri horiekin lanean (IKTak, sortutako materiala, eta abar).
8. Autoebaluazioa. Ikaskuntza-prozesuaren beraren eta hura hobetzeko lortutako emaitzen gaineko jabetze-mailari buruzko autoebaluazioan egindako gogoeten kalitatea baloratuko da.

Kalifikazio-sistema

UPV-EHU indarrean dagoen araudiaren arabera.

Azken froga eskatzen duten ikasleek, 3 ikasgai edo gehiagotan matrikulaturik daudenek eta 3 irakasgai baino gehiagotan azken froga eskatzen duten kasuetan, EZ dute DILANa egin beharrik. Hala ere, ikasleak eskatutako ikasgai bakoitzaren azken froga horretan, irakasleak aukeratutako frogak, testak, azterketa mota, aurkezpenak edo/eta praktikak egin beharko ditu, ikasgai eta modulan eskuratu behar diren edukien ezagutza, ikaskuntza emaitzak eta gaitasunak bermatzeko.

Egoera hauek izango dira kontutan:

MATRIKULATUTAKO IRAKASGAIK	EBALUAZIO JARRAIKO IRAKASGAIK	EBALUAZIO EZ JARRAIKO IRAKASGAIK	DILANa BAI/EZ
5	5	0	BAI
5	4	1	BAI
5	3	2	BAI
5	2	3	EZ
5	1	4	EZ
5	0	5	EZ
4	4	0	BAI
4	3	1	BAI
4	2	2	BAI
4	1	3	EZ
4	0	4	EZ
3	3	0	BAI
3	2	1	BAI
3	1	2	BAI
3	0	3	EZ
2	2	0	EZ
2	1	1	EZ
2	0	2	EZ
1	1	0	EZ
1	0	1	EZ

Dokumentu hau Gizarte Hezkuntzako VI Moduluko irakasleek osatu dute: Miren Aguirregoitia, Alaitz Etxaniz, Joana Garmendia, Nagore Ibaibarriaga, Irune Ibarra, Joana Miguelena, Goretti Orbea, Eider Saragueta (2022-2023 ikasturtea)